

## ASPASOR ELKARTEAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2021

### XEDEA

Aspasor elkartearen xedea da entzumen-urritasuna duten pertsonen eta haien senitartekoen beharretara konponbide egokiak lortzea, gorrak eskubide osoko herritar independente gisa gizarteratuta bizi ahal daitezen.

### IKUSPENA

ASPASOR elkarteak gorrei eta haien familiei arreta eskaini eta haien eskubideen alde egin eta ordezkatzeko erakundea izateko asmoa eta nahia agertzen du. Elkartearen osatzen duten guztien aniztasuna bildu, eta prebentzioan eta defentsan lan dinamika serioa sendotasunez garatzen du; eta horrekin batera, ekintza positiboak eskaintzen dizkie Arabako lurraldean entzumen-urritasuna duten pertsona eta taldeei.

### HASTAPENAK ETA BALIOAK

ASPASOR elkarteak konpromisoa hartzen du etengabeko berriztapena egiteko honako balio eta hastapen hauek betetzean: duintasuna, berdintasuna, autonomia pertsonala, parte-hartzea eta errespetua, gardentasuna eta zerbitzu- eta kudeaketa-kalitatea.

### ARRAKASTA-FAKTOREAK

Haren Xedea lortzeko ASPASOR elkarteak honako hauek behar ditu:

1. Estatutuak betetzea lana garatzean, jarduteko zeharkako lerro hauek kontuan hartuta: genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, lankide diren pertsonak duin bihurtzea, inplikaturako pertsona guztien parte-hartzea, kalitatezko arreta, giza-eskubideen defentsa.
2. Barne-antolaketa arina eta eraginkorra, uneoro planteatzen diren kolektiboaren beharrei erantzunak emateko gai. Komunikazio kanal azkar eta malguekin.
3. Erakundeari eta proposaturako jarduerari eusteko adinako jasangarritasun ekonomikoa.
4. Komunikazioa, komunikazio formal eta informaleko, erakunde barneko eta kanpoko kanalak ezarrita.
5. Erabaki eraginkorrak hartzea. Erabakiak hartzea arintzeko aukera, betiere hala egitea beharrezkotzat jo edo egoerak hala eskatzen duenean.

6. Etengabeko ebaluazioa, inplikaturako alderdi guztien iritziak jasota: profesionalena, eragindako pertsonena, senitartekoena eta une jakin batean aintzakotzat har daitezkeena.
7. Erantzule bakoitzaren funtzio eta erantzukizunak ongi eta argi definitzea planteatu daitezkeen jarduerak gauzatzea.
8. Ezagutzaren kudeaketa. Profesionalek eta erakundeko zuzendariek elkartze-kudeaketaren hainbat esparrutan jasotako informazioa eta gaitasunak transmititzea.
9. Berritzeko gaitasuna, gerta daitezkeen eraldaketara egokitzeko, eta une eta egoera bakoitzean esku-hartze sozialerako era berriak bilatzeko gaitasuna.
10. Kanpoaldeko presentzia, bai erakunde mailan baita sareetako koordinazioan ere elkartze-esparruan egiten den lanaren eraginak sortutako etengabeko kezka.
11. Barne-aldeko eta kanpo-aldeko parte-hartzea. Eragindako alderdiek, bai planteamenduan baita hainbat elkartze-ekintzarako garapenean ere, inplika daitezkeen lortzea. Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen interesen aldeko jardueran beharrezkotzat balioesten diren foro eta prozesuetan Aspasor elkarteak parte-har dezan ahaleginak egitea.

#### ERAKUNDEAREN EGOERA

AHULEZIAK/HOBETZEKOAK	INDARGUNEAK/PUNTU INDARTSUAK
Hasiera batean, eragindako pertsonen parte-hartze eta inplikazio eskasa. Diagnosiaren ondoren familiak paralizatuta geratzen dira (ezjakintasuna).	Esperientziako erakundea, ordezkatzen duen kolektiboari laguntza ematean lan ibilbide luzekoa.
Desgaitasunaren beraren ondorioek hizkuntzaren arloan zaildu egiten dute batzuetan hizkuntza oinarrizkoa den hainbat prozesuetan parte hartzea.	Erakundean eta zerbitzuen erantzukizunean esperientzia luzea duten profesionalak.
Baliabide urriak batez ere erakundearen egoitzan (txikia eta ez da irisgarria)	Irudi korporatiboa eta eguneratutako web guneko irudia berriki berrituak.
Familien kultura-heterogeneotasuna: negatiboa ez bada ere, hainbat jardueratan lan planteamendua zaildu	Baliabide ekonomikoak dibertsifikazioa.

egiten du.	
Alderdi aldarrikatzailea eta erakunde-harreman sistematikoak.	Erakundea ezagutzea tokiko eta lurraldeko erakundeen artean.
Kolektibo txikia eta ez oso aldarrikatzailea.	Aldez aurretiko jarrera positiboa eta gorren eta familien inplikazioa.
Berrien harreran gorren eta familien inplikazioa hobetzea, profesionalen lana lagunduta.	
<b>MEHATXUAK/OZTOPOAK</b>	<b>AUKERAK/LAGUNTZAK</b>
Baliabide ekonomikoetan konpromisorik eza, jarraipenari oztopo jartzen diote.	Kolektiboaren hainbat sektoretan eragin handiagoa, adibidez inplantea jarritako pertsona nagusiak.
Zuzendarien denbora eta eskuragarritasunik eza, familia-betekizunak eta lanekoak, eta abar, bateragarriak egiteko.	Euskal Herriko Federazioan eta Estatuko Konfederazioan (FIAPAS) dauden baliabideei etekinak ateratzea. Kontsolidazioa.
Gorren kolektiboaren beraren joera desgaitasuna ukatzeko.	Arabako Gorrak elkartearekin partekatutako koordinazioa eta lana hobetzea, hainbat beharkizun eta aldarrikapen kontsolidatzea Gasteizen oro har ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN kolektibo trinko gisa.
Kolektiboarekin Araban lan egiten dugun elkarte bien espezifikotasuna askotan argitzeko beharra, nahasketa handiak gertatzen baitira arlo horretan.	

## LERRO ESTRATEGIKOAK

1. Elkartze-mugimendua sendotzea, Zuzendaritza Batzordean ordezkaritza-lantalde sendoa finkatuta, elkartze-lanean inplikaturik egon dadin eta aurrera egiten duten jarduerak eta ekitaldien bultzatzaile izan dadin.
  - a. Lan espezifikoa eta arina, elkartze-zereginetan erantzukizunak eta eginbeharrekoak banatuta.

- b. Jardunaldiak eta harreman informalak sustatzea Zuzendaritza Batzordeko kideen artean.
    - c. Garatzen diren jarduera espezifikoetan inplikazio handiagoa.
  2. Erakunde-harreman etengabe eta sistematikoa ezartzea Aspasor elkartearen eta ordezkatzeko kolektiboaren eskubideen alde lehenesten diren hainbat erakunderen artean.
    - a. Erakunde-harremanetarako egutegia lantzea, kolektiboaren beharkizunen artetik jasotako gaiak sartuta.
  3. Komunikabideetan izandako eragina hobetzea eta haietan gorreria agerraraztea.
    - a. Esku-hartzeen egutegia lantzea, hainbat ospakizun direla eta: Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna, koklea-implantea, ... eta tokiko komunikabideetan eragin handiagoa izaten saiatzea.
    - b. Tokiko komunikabideen zerrenda eta sare sozialetan agertzen den eragina landu eta eguneratzea.
  4. Gaur egun erakundeetan dauden zerbitzuak sendotzea (Informazio eta Aholkularitza zerbitzua, Lan bitartekotzako zerbitzua eta Komunikazio bitartekaritza zerbitzua), haien funtzionamendua eta kudeaketa hobetuta:
    - a. Lan bitartekotzako zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipena argitzea.
    - b. Komunikazio Bitartekaritza zerbitzuaren esku-hartzeetan lehenetsunak ezartzea eta beharrezkotzat joko balitz indargarri profesionala planteatzea.
    - c. Gorren eta familien esku-hartzea Informazio eta Aholkularitza zerbitzuan osotzea hala komeni dela uste denean.
    - d. Zerbitzuen arteko koordinazio-zirkuituak ezartzea, beharkizunei oro har erantzuna emateko egitasmoak planteatzera begira.
  5. Jasangarritasun ekonomikoa finkatzea.
    - a. Erakundearen jarraipen-konpromisoak lortzen saiatzea.
    - b. Sektore pribatuaren laguntza erakartzea, ordezkatzeko duen erakunderako eta kolektiborako egoera onuragarrietan.
  6. Egoitza lortzea, arreta ematearen hobekuntza lekuak eta beharkizunei oro har erantzuna emango diona.
  7. Arabako Gorra elkartearen laguntzarekin harremana eta lana hobetzea, eta ahal dela, erakunde bietarako eta elkarrentzat itun onuragarriak ezartzea.